



ENPLEGUA + INBERTSIOAK = ETORKIZUNA GURE ETORKIZUNA BORROKATU!

udazkena 2019

ARCELOR MITTAL

EUSKAL HERRITIK ARCELOR MITTAL TARANTOKO (ITALIA) ETA UNIONE SINDACALE DI BASEri ELKARTASUNA ERAKUSTEN DIOGU



Euskal Herriko LAB sindikatutik Arcelor Mittal Tarantoko (Italia) langileei eta gure sindikatu lagun eta LAB bezala Munduko Federazio Sindikatuko kide den Unione Sindacale di Base sindikatuari gure elkartasun osoa bidali nahi diogu. Unione Sindacale di Base (USB) sindikatuak Azaroaren 28rako langile batzar bat deitu du eta Azaroaren 29rako greba eta mobilizazio eguna ere deitu du.

ArcelorMittal multinazionalak orain bi urte Taranto-ko lantegian (garai bateko Ilva) enplegua mantentzeko akordioa sinatu zuen, horrela lanean zeuden 10.000 langileei enplegua bermatuz. Urtetako esplotazioaren ondorioz ingurumen ikuspegi batetik suntsiketa ikaragarria eragin duen altzairutegi bat da. Orain dela aste batzuk Arcelor Mittalek Italiatik alde egingo zuela adierazi zuen, aurkitu zuena baino oraindik eta egoera txarrago bat utziaz.

Unione Sindacale di Base (USB) sindikatuak greba eguna deitu du eta Italian industria politika publiko baten aldeko

eskaria egin du. Tarantoko kasuak multinazionalen politiken eraginak agerian utzi ditu; enplegua, segurtasuna eta lan osasuna bermatzeko interesik eza, eta krisi ekonomikoa, enplegua eta ingurumenari erreparatuko dion politika publiko eza.

Hazkunde ekonomiko tasa altuenak dituzten herrialdeek industria publiko baten sostengua daukate, eta aldiz Italia adibidez enpresa estatalen desagertzea eta pribatizazio gehien eman diren herrialdeen artean dago.

Euskal Herrian ere orain urte gutxi Zumarragako altzairutegiaren itxiera pairatu genuen. Egunero kalitatezko enpleguaren alde eta benetazko politika industrialak aldarrikatzen dihardugu.

Gure ustetan industria defendatzea ez da ingurumena kaltetzearen sinonimo, eta kalitatezko enplegu duinaren aldeko borroka gure egiten dugu. Herri nahiz hirietan jasangarria, moderno eta enplegu duina sortzeko gai den industria baten aldeko borroka babesten dugu.

Aipatutako guztiagatik LAB sindikatutik Italiako Taranto hiriko Arcelor Mittal-eko langileen borrokari gure elkartasun osoa adierazten diogu. Azaroaren 29ko greba langile klasearen borroka eta duintasunaren adierazle izatea espero dugu, eta enplegu duina, osasungarria, eta segurua bermatuko duen etorkizuneko industria irabaztearen aldeko gatazkak langileentzako konponbidea positiboa izan dezan espero dugu.



www.lab.eus



ENPLEGUA + INBERTSIOAK = ETORKIZUNA GURE ETORKIZUNA BORROKATU!

fall 2019

ARCELOR MITTAL

FROM THE BASQUE COUNTRY SOLIDARITY WITH ARCELOR MITTAL TARANTO (ITALY) WORKERS AND WITH UNIONE SINDACALE DI BASE



LAB, class oriented trade union from the Basque Country sends all of its solidarity with Arcelor Mittal Taranto workers and specially to the class oriented trade union Unione Sindacale di Base, affiliated as LAB to the World Federation of Trade Unions. Unions Sindacale di Base called for today November 28th assemblies with workers and a 24 hour strike and mobilization day in Arcelor Mittal Taranto.

The multinational company Arcelor Mittal signed two years ago an agreement to keep the employees in the company (former Ilva and the largest steel production plant in Europe). With the agreement the company guaranteed the employment for the 10.000 workers in the factory. The factory has been devastated from an environmental point of view by years of exploitation.

A few weeks ago ArcelorMittal declared that was leaving Italy, failing to reach an agreement and leaving a situation even worse than the one the multinational had acquired.

USB has proclaimed a general strike and launched an appeal for Italy to return to a true public industrial policy. The Taranto case demonstrates both the umpteenth failure of private individuals, their lack of interest in combining work, safety and health, and the lack of public tools to address an economic crisis, employment and the environment.

The countries with the highest economical development rate have the support of one strong public industry and Italy is one of the countries with the highest rate of dismantlement of state companies and privatizations.

In the Basque Country we suffered as well the close of the steel plant in Zumarraga. We daily continue fighting for a decent job conditions and calling for a real industrial policy in the Basque Country.

We support the struggle to defend our industry, but without any damage to the environment and with decent job conditions. We join the call to fight in the companies and city and villages for a reactivation of one sustainable, and modern industry and with the capacity of creating new and decent jobs.

Finally, from the Basque Country, LAB supports the struggle of Arcelor Mittal Taranto workers. We hope that the November 29th strike will be an Italian working class' big demonstration of struggle and class dignity. We wish that this struggle will be the necessary leverage to find a solution in this conflict that passes from decent, healthy and safe jobs in the industry sector.



www.lab.eus